


2 Ezberdintasunak

Xantiren osabak eraikuntzan egiten du lan. Lanean ari dela, bi argazki atera dizkio. Berdinak dirudite, ezta? Jarri arreta, eta **ea zazpi ezberdintasun aurkitzen dituzun.**




Panpina

Pertsona batek milaka aurpegi izan ditzakeela esan ohi da. Eskulan honetan duzu adierazpen horren froga.



Beharrezko materiala

- Guraizeak.
- Pintzelak.
- Porexpan zati bat (40 x 60 cm-koa).
- Askotariko koloreetako pintura plastikoa.
- Bi aldeetan belkroa duen zinta eranskorra.
- Hainbat koloretako plastikozko orri opakoak.
- Arkatz markagailu beltza.

Nola egin



1 Porexpan zatia hartu (gogoratu 40 x 60 cm izan behar dituela), eta soingain edo bustu bat marraztu. Moztu guraizeekin.





2 Bi aldeetan belkroa duen zinta eranskorra hartu, eta sei zati moztu. Zati horiek begiak, sudurra, ahoa eta lepoa jarriko ditugun lekuetan itsatsi. Zintak ezarriak ditugunean, haragi koloreko pintura plastikoa hartu, eta aurpegia eta lepoaldea margotu. Sorbalda alde, berriz, koloreetan marraztu, gure panpinak elastiko marradun bat jantzita izango balu bezala.

3 Plastikozko orri zuri batean hiru begi pare ezberdin marraztu. Plastikozko orri gorrian, berriz, hiruna aho eta sudur ezberdin. Moztu marraztutako irudi guztiak.

-pasa



3 Kopiatu koadroz koadro

'Laika' txakurrak lepoan duen tximeleta begizta da marrazkikoa. Hori bera alboko koadroetan kopiatzeko gai al zara?



4 Itzalak

Kandela pizteko, Maddiren aitonak honako poxpolo hau erabili du. Itzal hauetatik zein da poxpoloarena?



4 Begiak, sudurra eta ahoa sortu ditugun moduan, sortu ileordeak, txapelak, gorbatak eta tximeleta begizta ezberdinak ere. Horiei nahi adina marrazki egin diezazkiekegu arkatz markagailu beltzarekin.



5 Marraztutako elementu guztiak moztu ostean, elementuen atzealdean beste belkro zatia ezarri. Amaitu dugu gure panpina. Orain, aurpegirik xelebreenak lortzea izango da gure zeregina. Horretarako, sortutako elementuak gure gustura ezarriko ditugu aurrez marraztutako soingainean.

